



12.05.04AN UDALBATZAK EGINIKO EZ OHIKO ETA PREMIAZKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

*Ramón Ajuria Uranga
Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea
Andoni Solupe Amozarrain*

José Ramón Uribe Uriarte jauna

Iñaki Nafarrate Kortabarría jauna

EZ BERTARATUAK:

*Idoia Beitia Izurrategi andrea
Martín Damián Echave Echevarría jauna
Lierni Altuna Ugarte andrea*

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamabiko maiatzaren 4an, arratsaldeko zazpiak (19:00) direnean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Ramón Ajuria alkatearen lehendakartzapean eta Itxaso Trigueros idazkariaren laguntzarekin. Alkateak, quorum dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:

1.- BILKURAREN PREMIA BERRESTEA

Alkate jaunak deialdiaren premiazko izaeraren arrazoiak azaldu ditu, deialdia jaso zen Dekretuan bertan jasotako azalpena irakurriz: "Arabako Foru Aldundiak deituriko 2012-2015 epealdirako foru-planeko diru-laguntzak eskatzeko epemuga maiatzaren 9an izanik; Udalak diru-laguntza eskaeran sartu behar dituen obrak azertu, lehentasunak finkatu eta horien aurreproiektuak gertu izateko behar izan duen denbora dela - eta; Diruz-laguntzeko eskatuko diren obren ezaugarriak atzo, maiatzak 2, egindako hirigintza batzordean azertu eta onartu zirela kontuan hartuz eta, horren ondorioz, ez-ohizko Udalbatza deitzeko gutxieneko epea betetzeak ekar zitzakeen kalteak kontuan izanik (eskaera egiteko epemuga dela eta) (...)".

Ondoren, Aramaio Udalbatzak bozketari ekin dio eta, 5 zinegotziren aldeko boto eta zinegotzi baten ezezko botoarekin (EAJ/PNV taldeko zinegotzia) bilkuraren premia berretsi du.

EAJ/PNV Taldeko zinegotziak bere ezezko botoa dela-eta adierazi du apirilaren 25ean egindako bilkuran udal gobernutik aurreratu zela ez-ohiko bilkura bat egin beharko zela gaurko gaia jorratzeko, ez baitzen egun hartako gai-zerrendan sartu. Maiatzaren 2an egindako hirigintza batzordean gai hau jorratu zen eta batzordeburuak iragarri zuen hurrengo astean ez-ohiko oso bilkura egingo zela gai hau onartzeko. Ondoren, maiatzaren 2an, Idazkaritzatik deitu zitzaion ohartarazteko udal gobernutik erabaki zela ez-ohiko bilkura hori bertan bera uztea, eta ordu erdi geroago udaletxeko beste langile batek deitu ziola esateko hurrengo egunean (ostirala), ez-ohiko eta premiazko bilkura egingo zela. Egoera hau salatu nahi izan du, beti azkeneko momenturako uzten dira.

Andoni Solupe zinegotziak, aipatua izanagatik, erantzun dio arduraz jokatu dela eta ez dela azkeneko momenturako utzi. Zeuden aukerak ondo azertu behar izan dira eta gero



aurreproiektuak prestatu. Beraz, ez dago bat ere ados salatutako ustezko arduragabekeria horrekin.

2. 2012-2015 EPEALDIKO FORU-PLANEKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA.

Hirigintza Batzordeak gai honen inguruan egin duen irizpenaren irakurketari ekin zaio:

Arabako Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 21eko 11/2012 Foru Dekretuaren bidez, deialdia egin du Obra eta Zerbitzuetako Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2012-2015 aldirako laguntzak emateko.

Diru-laguntza arautu behar duten xedapenen arabera, Aramaiori (200 biztanletik gorako herria den neurrian) gehienez 2 obra diruz-lagunduko zaizkio. Halere, Hirigintza Batzordetik 3 obra eskatzeko aukera aztertu du, baina haien arteko lehentasuna finkatuz, geroago zehaztuko den moduan.

Hirigintza Batzordeak, mahai gainean jarri diren aukerak eta nahiak aztertu ditu eta ontzat eman du gai honen inguruan Udal Zerbitzu Teknikoak egindako eta Hirigintza Batzordeburuak ikus-onetsitako txostena. Beraz, Udalbatzari egingo zaion erabaki-proposamena txosten horretan oinarrituko da, bertan esandakoari lotuz. Txostenak hauxe dio:

Arabako Foru Aldundiko Obra eta Zerbitzuen Foru Planean 2012-2015 programari dagokionez, toki erakundeentzako laguntzak emateko deialdia Aramaioko Udalera iritsi eta gero, Udalak aztertu du deialdi honen barruan sartzeko premiazkoak diren obrak.

Aukeratutako obrak eta haien arteko lehentasuna hauxe da:

1.- MURU AUZOKO ZONALDEKO HONDAKIN UREN SANEAMENDUA ETA SARBIDEA EGOKITZEA

Gaur egun, Muru auzoko ur zikinen sarea oso egoera txarrean dago eta baita zolaketa ere.

Muru auzoa eraberritzeko obrak egitearen beharra handia dela ikusten da, eta honen ondorioz, Foru Planaren aurretiazko deialdian eskatu eta dituz lagundua izan zen, baina 2011ko abenduan atzera bota egin zen Arabako Foru Aldunditik.

Aipatutako obra hauek, Gureia auzoko hondakin uren saneamenduaren sarea eraberritzeko planteatzen dira, eta bestalde auzo guztiko zolaketa eraberritzeko asmoa dago.

Obra hauekin, Muru auzoko zonaldeko bizilagunek onura aterako dute, hau da, gutxi gora behera Aramaioko 20 biztanle.

Egin beharreko lanak finkatu nahian, Stoa Ingenieritzak proiektu bat egin zuen 2010ko Abenduak datarekin.

Aurkeztutako proiektuan, agertzen den izan behar den obraren gastua honako hau da:

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	365.659,56 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	9.416,93 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	9.416,93 €
GUZTIRA (BEZ barne)	384.493,42 €



Obraren ezaugarri nagusiak hauexek dira:

OINARRIZKO AZPIEGITURAK

- Ur saneamendu sarea (oraingo sarearen antzintasuna ezezaguna da)
- Zoladura

LUR AZPIKO BESTE AZPIEGITURA BATZUK

- Argiteria publikoko lur azpiko sarea

Obra hau 2013an gauzatuko litzateke.

Muru-ko obra Foru Planeko aurreko deialdian ere diruz-laguntzeko eskatu zen. Diruz-laguntzaren oinarriek diotenez, ezin izango da diruz-laguntzarik eskatu Foru Planaren aurreko programetan diruz-lagundu izan ziren obretarako, diruz-laguntza horri uko egin edo bertan behera geratu ez baziren. Beraz, zilegi da

2012-2015eko deialdi honetan Muru-ko obra berriz eskatzea, Diputatuen Kontseiluaren 793/2011 Erabakiaren bidez baliogabetu baitzen Aramaioko Udalari aipatu obra egiteko diruz-laguntza.

2.- GUREIA AUZOKO AZPIEGITUREN ETA ZOLAKETAREN ERABERRITZEA

Gaur egun, Gureia auzoan dauden argindar, argiteri publiko eta telekomunikazio sareen kableak airetik doaz. Bestalde auzo guztiko zolaketa nahiko egoera txarrean dago.

Honen ondorioz, Gureia auzoa eraberritzeko obrak egitearen beharra handia dela ikusten da.

Aipatutako obra hauek, Gureia auzoko euri uren saneamenduaren sareak eraberritzeko planteatzen dira, eta bestalde gas sarea sartzeko eta argindar, argiteri publikoa eta telekomunikazio sareak lurperatu ahal izateko beharrezkoak diren lanak egiteko asmoa dago, auzo guztiko zolaketa eraberritzeaz gain.

Obra hauekin, Gureia auzoko bizilagunek onura aterako dute, hau da, gutxi gora behera Aramaioko 36 biztanle.

Egin beharreko lanak finkatu nahian, Stoa Ingenieritzak aurreproiektu bat egin du 2012ko Apirilak datarekin.

Aurkeztutako aurreproiektuan, agertzen den izan behar den obraren gastua honako hau da:

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	481.431,68 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	12.808,81 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	12.218,81 €
GUZTIRA (BEZ barne)	506.459,30 €

Obraren ezaugarri nagusiak hauexek dira:

OINARRIZKO AZPIEGITURAK

- Zoladura

LUR AZPIKO BESTE AZPIEGITURA BATZUK



- Lur azpiko elektrizitate sarea
- Lur azpiko telekomunikazio sarea
- Argiteria publikoko lur azpiko sarea
- Bestelakoak

Obra hau 2015ean gauzatuko litzateke eta ez da aurreko deialdietan diruz-laguntzeko eskatu.

3.-BARAJUEN AUZOKO AZPIEGITUREN ETA ZOLAKETAREN ERABERRITZEA

Gaur egun, Barajuen auzoan dauden zerbitzuen sareak nahiko zaharkituta daude (ur zikinak eta euri urak gainera sare berdinetik doaz) eta argindar, argiteri publiko eta telekomunikazio sareen kableak airetik doaz. Bestalde ez dago gas sarerik eta auzo guztiko zolaketa ez dago oso egoera onean.

Honen ondorioz, Barajuen auzoa eraberritzeko obrak egitearen beharra handia dela ikusten da.

Aipatutako obra hauek, Barajuen auzoko ur edangarriaren, ur zikinen saneamenduaren eta euri uren saneamenduaren sareak eraberritzeko planteatzen dira, eta bestalde gas sarea sartzeko eta argindar, argiteri publikoa eta telekomunikazio sareak lurperatu ahal izateko beharrezkoak diren lanak egiteko asmoa dago, auzo guztiko zolaketa eraberritzeaz gain.

Obra hauekin, Barajuen auzoko bizilagunek onura aterako dute, hau da, gutxi gora behera Aramaio 90 biztanle.

Egin beharreko lanak finkatu nahian, Stoa Ingenieritzak aurreproiektu bat egin du 2012ko Apirilak datarekin.

Aurkeztutako aurreproiektuan, agertzen den izan behar den obraren gastua honako hau da:

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	1.220.811,46 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	29.371,22 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	28.309,22 €
GUZTIRA (BEZ barne)	1.278.491,90 €

OINARRIZKO AZPIEGITURAK

- Ur hornikuntza sarea
- Ur saneamendu sarea
- Zoladura

LUR AZPIKO BESTE AZPIEGITURA BATZUK

- Lur azpiko elektrizitate sarea
- Lur azpiko telekomunikazio sarea
- Lur azpiko etxerako gas sarea
- Argiteria publikoko lur azpiko sarea

Obra hau 2015ean gauzatuko litzateke eta ez da aurreko deialdietan diruz-laguntzeko eskatu.

IRIZPENA

Udal Zerbitzu Teknikoak egindako txostenekin bat etorritik, Hirigintza Batzordeak aho batez



ondorengo erabakia hartzea proposatzen dio Udalbatzari:

Lehenengoa.- Hurrengo lan-aurreproiektuak (eta proiektua, Muru-ko obraren kasuan) onartzea, dagozkien aurrekontu aurreikuspenarekin:

1.- Aramaioko Muru auzoko hondakin-uren saneamendua eta sarbidea egokitzeko lanen aurreproiektua onartzea, ondoko aurrekontu aurreikuspenarekin:

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	365.659,56 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	9.416,93 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	9.416,93 €
GUZTIRA(BEZbarne).....	384.493,42 €

2.- Aramaioko Gureia auzoko azpiegituren eta zolaketa eraberritzeko lanen aurreproiektua onartzea, ondoko aurrekontu aurreikuspenarekin

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	481.431,68 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	12.808,81 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	12.218,81 €
GUZTIRA (BEZ barne).....	506.459,30 €

3.- Aramaioko Barajuen auzoko azpiegiturak eta zolaketa eraberritzeko lanen aurreproiektua onartzea, ondoko aurrekontu aurreikuspenarekin:

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	1.220.811,46 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	29.371,22 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	28.309,22 €
GUZTIRA (BEZ barne)	1.278.491,90 €

Bigarrena.- Aurreko puntuan onartutako lanak finantzatzeko diru-laguntza eskaera egitea, Arabako Foru Aldundiko Foru Planeko 2012-2015 epealdiko programaren barruan. Lanen arteko lehentasuna hurrengoa izango da: (i) Muru-ko zonaldeko obra; (ii) Gureia auzoko obra eta (iii) Barajuen auzoko obra.

Hirugarrena.- Erabaki hau Arabako Toki Administrazioaren Saileko Foru Diputatuari jakinaraztea (Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Zerbitzua) eta Alkatea ahalduntzea Foru Planeko 2012-2015 epealdiko diru-laguntzarekin lotura duten izapide eta agiri guztiak Udalaren izenean sinatu eta aurkez ditzan.

Batzordeburu den Andoni Solupe zinegotziak irizpenean jasotako datuen azalpenak eman ditu era orokorrean eta ondoren, bozketaren zehaztapenak finkatu dira.

Iñaki Nafarrate zinegotziak hitza hartu du

Jarraian, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio. Emaitzak hurrengoak izan dira:

Aldeko botoak: 5.

Halere EAJ/PNV udal taldeko Nafarrate zinegotziak adierazi nahi izan du obren arteko lehentasuna finkatzerakoan lehenengoarekin ez dagoela ados, bere ustez EDAR-eko (Estación *Depuradora de Aguas Residuales*) obra izan beharko litzatekeela.

Abstentzioak: 1 (Aramaioko Alkartasuna udal taldeko Uribe zinegotziak abstenitu egin da, Barajuen auzoko bizilaguna denez, interes pertsonala eduki dezakelakoan).



Beraz, Aramaioko Udalbatzak, Hirigintza-Batzordeak egindako irizpenarekin bat etorriz, ondorengoa ERABAKI DU gehiengo absolutuz:

Lehenengoa.- Hurrengo lan-aurreproiektuak (eta proiektua, Muru-ko obraren kasuan) onartzea, dagozkien aurrekontu aurreikuspenarekin:

1.- Aramaioko Muru auzoko hondakin-uren saneamendua eta sarbidea egokitzeko lanen aurreproiektua onartzea, ondoko aurrekontu aurreikuspenarekin:

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	365.659,56 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	9.416,93 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	9.416,93 €
GUZTIRA(BEZbarne).....	384.493,42 €

2.- Aramaioko Gureia auzoko azpiegituren eta zolaketa eraberritzeko lanen aurreproiektua onartzea, ondoko aurrekontu aurreikuspenarekin

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	481.431,68 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	12.808,81 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	12.218,81 €
GUZTIRA (BEZ barne).....	506.459,30 €

3.- Aramaioko Barajuen auzoko azpiegiturak eta zolaketa eraberritzeko lanen aurreproiektua onartzea, ondoko aurrekontu aurreikuspenarekin:

▪ Gauzatzearen aurrekontua (BEZ barne).....	1.220.811,46 €
▪ Proiektua idazteko ordainsariak (BEZ barne)	29.371,22 €
▪ Obra Zuzendaritzako ordainsariak (BEZ barne)	28.309,22 €
GUZTIRA (BEZ barne)	1.278.491,90 €

Bigarrena.- Aurreko puntuan onartutako lanak finantzatzeko diru-laguntza eskaera egitea, Arabako Foru Aldundiko Foru Planeko 2012-2015 epealdiko programaren barruan. Lanen arteko lehentasuna hurrengoa izango da: (i) Muru-ko zonaldeko obra; (ii) Gureia auzoko obra eta (iii) Barajuen auzoko obra.

Hirugarrena.- Erabaki hau Arabako Toki Administrazioaren Saileko Foru Diputatuari jakinaraztea (Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Zerbitzua) eta Alkatea ahalduntzea Foru Planeko 2012-2015 epealdiko diru-laguntzarekin lotura duten izapide eta agiri guztiak Udalaren izenean sinatu eta aurkez ditzan.

Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, iluntzeko 19:20ak direnean, alkate jaunaren sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.